

1. BALIO PROPOSAMENA

Askotan, euria dagoenean eta kaletik goazenean, aterkin arruntekin busti egiten gara, euria aurretik edo alboetatik datorrelako. Horregatik, gure aterkin-marmokarekin ez gara busti egingo, daukan errezelari esker. Gure aterkinak, hasieran, guardasola arrunt bat eman dezake, baina ez da horrela. Gure produktuak beste aterkinetatik desberdintzeko, oihal irazgaitz bat dauka euri tanta bat ere busti ez zaitzan eta honek bezeroen arreta deitu dezake eskaintza berdingabea baita. Aurretik aipatutako oihala aterkinera gehitzeko, botoi batzuk izango ditu, bai guardasolak bai oihal iragazgaitzak. Horrela, aterkin batek ez du oihal konbinazio bakar bat izango, baizik eta hainbat konbinazio desberdin egiteko aukera izango du. Gainera, hainbat oihal diseinu desberdin izango dituztenez, aterkinak bezeroen arroparekin, zein haien eguneko emozioekin bat etorri daitezke. Oihal hau lortzeko, “Plastibor” enpresarekin elkarlanean ibiliko gara, hau da, oihalak plastiko birziklatuaz osatuta egongo dira, beraz, ekologikoak izango dira ingurumenerako izango lukeen inpaktu negatiboa ekidituz. Bestalde, Zornotzako enpresa bat izanik, komertzio lokala sustatuko dugu.

Gure enpresak eskaintzen duen ekoizkina, ia betidanik existitu egin den asmakizun batean oinarritzen bada ere, aterkinetan, berrikizun bat dauka. Horrek esan nahi du guztiok ezagutzen dugun produktua hobetu dugula. Horregatik gure aterkin-marmoka patentatuko dugu, inork geure ideia lapurtu ez dezan. Beraz, gure berriketak eskaintzen dituen abantailengatik, aterkin ohikoen bezeroak geure bezeroak bilakatu ditzakegu. Bestalde, patenteari esker, guk izango dugu produktu hau saltzeko eskusibotasuna, eta horrek dakartzan abantailak izugarri positiboak dira. Gainera, beste pertsona batzuei ere utzi ahal diegu gure ideia erabiltzen, ordaintzearen truke. Horrela, diru-sarrera gehiago lortuko ditugu.

Alde batetik, kalitate honeko aterkiak salduko ditugu eta bestetik, diseinu eta tamaina desberdineko guardasolak eskainiko ditugu gure bezeroek aukeratu ditzatzen, beraz, proposamen zehar aberatsa dela ondorioztatu dezakegu.

Jorrazeko beste puntu interesgarri bat teknologia da, nonahi dagoen hori. Horregatik, online salduko ditugu aterkiak guztiontzat eskuragarri egon daitezen. Honek Espainia osoan zehar saltzea ahalbidetzen du, edonork, edonon eta edonoiz erosi ahal izateko. Horrez gain, Zornotzan lokal bat izango dugu, eta bertan ere aterkinak erosteko aukera izango dute

bezeroek. Beste alde batetik, multimarketaz baliatuko gara aterkin-marmoka beste toki batzuetan salgai egon dadin, *El Corte Ingles*en adibidez.

